

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Eguzkitakoa, aurtengo jai egun guztietarako osagai egokia

Uda giroan ospatu dira Andoaingo jaiak, egunez egun handituz joan den tenperaturarekin / 6-13



"La Manada" auzian zigortutako kideak aske uzteko erabakiak erantzun zabala jaso du / 6

Jon Zuluetak hartuko du Andoaingo alkatetzaren behin behinean, Ana Carrere osatzen den bitartean / 16

Dantzariak, perkusio joleak eta txistulariak saio bikaina eskaini zieten urnietarrei, ekainaren 23an / 3



Aurtengo Axeri dantza aspaldiko jendetsuena izan da, hirurogeita bost partaiderekin / 10

TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC tornoan lan egiteko

Interesatuak bere CVa ondorengo helbidera bidali beharko dute:

Talleres Mitxelena, S. Coop.
Eziaga poligonoa 21, 20120 Hernani
2018/07/06 baino lehen

info@talleresmitxelena.com

mitxelena
LARGE SCALE CUSTOM MACHINING



Urnietako ikastetxeetako gazteek Agenda 21 proiektuan landutakoa azaldu zieten Udal ordezkariak, joan zen ekainaren 15ean. AIURRI

Klima-aldaketa

Agenda 21 proiektuaren baitan, ikasturtean zehar, klima aldaketaren gaia landu dute Andoaingo eta Urnietako gaztetxoek. Ondorioak eta proposamenak Udal ordezkariak luzatu zizkieten Udalbatza berezi banatan, hausnartutakoak bidea izan dezan



Andoaingo ikastetxeetako gaztetxoek klima aldaketari aurre egiteko proposamenak luzatu zizkieten Udal ordezkariak. AIURRI

Olatz Lasa ANDOAIN / URNIETA

Bi herriko gaztetxoak izan ziren protagonista Agenda 21 proiektuan landutakoa azaltzeko ospatu ziren Udalbatza berezi banatan. Andoaindarrak ekainaren 7an hurbildu ziren Udaletxera eta bertan mundu mailako arazoari aurre egiteko proposamenak azaldu zizkieten Ana Carrere alkateari. Han ziren Esti Mujika Hezkuntza, Berdintasun eta Kultura saileko zinegotzia, Mainer Lainez PSE-ko bozeramailea eta Mari Jose Izagirre EAJ-ko bozeramailea ere.

Bi ikaslek hartu zuten bozeramale lana, eta ondoren, gainontzeko ikasleek banan-bana irakurri zituzten proposamenak. Klima-aldaketaren aurrean herritarren jarrera nolakoa den ere aztertu zuten, adin-tarte ezberdinak aintzat hartuz: "Helduek eta jubilatuek jarrera arduratsua agertzen dute, nahiz eta hobetzeko beharra badutela sentitzen duten. Haurrei, aldiz, zailagoa egiten zaie klima-aldaketaren kontzeptua ulertzea". Ondorio gisa, ikasleak kontzientziazioa, informazio praktikoa eta neurriak hartzeko baliabideak behar direlakoan daude.

Ekitaldia amaitu aurretik, Ana Carrere alkateak proposa-

men horiek Andoainen nola landu daitezkeen edota lantzen ari diren azaldu zien.

Urnietako ikasleak Udaletxean

Ekainaren 15ean Egape, Presentacion de Maria eta Salesiar ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak udaletxera hurbildu ziren. Ondoan izan zituzten hainbat ordezkari, Mikel Pagola alkatea buru zutela.

Klima aldaketari aurre egiteko zenbait neurri proposatu zituzten ikasleek, hala nola, eskolara oinez edo bizikletaz joatea, eremu publikoetan zuhaitz gehiago landatzea, egungo argiteria sistema LED teknologiarara aldatzea, argiaren intentsitatea erregulatzea, garraio publikoa erabiltzea, oporetara joatean etxeko argiteria guztia itzaltzea...

Proposamen guztiak entzutean, Mikel Pagola alkateak eta Urnietako udal ordezkariak beren proposamenak kontutan hartuko zituztela adierazi zieten.

Argazkiak eta bideoak

Agenda 21eko egitasmoaren baitan ospatu diren bi Udalbatza bereziko argazki-bildumak eta bideoak ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



Suaren inguruko hesidura zabaldu behar izan zuen antolakuntzak, suak berak hartu zuen tenperatura eta altuera handiagatik.

Sorginen Akelarrea

Aipagarria da Urnietan pizten den su kopurua, ekainaren 23an. Ilunabarrean mendialdera eta auzoetara begira jarri eta askotxo ikus daitezke etxe eta baserrien kanpoaldean. Guztien artetik ikusgarriena Plazido Muxika plazakoa da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Arantxa Corbelle, Paqui Navas eta beste hainbat lagunek Urnietako Akelarreari bultzada berezia eman diote. Ez diote, gainera, ikuskizunari mugarik ipini nahi. Urtez urte hobekuntzak txertatuz doaz eta aurtengoan, esaterako, elementu berriak txertatu eta ikuskizuna osatu egin dute. San Juan plazan abiatu zuten kalejira eta ikusleek hortxe aurkitu zuten lehen berrikuntza: Marik batetik bestera zeraman Sugar sugea. Gurpildun plataforma zen, arte handiz egindakoa. Pertsonaia mitologiko berriak ikusgarritar-



Mari eta Sugar. URNIETAKO AKELARREA

sun handiagoa eman zion kalejirari. Plazara iritsita, jendetza zain zuten. Gutxitan bezala betetzen dira plazako harmailak. Ekainaren 23o gauan jendez lepo zegoen, ikuskizunaz gozatzeko gogoz. Dantzariak, Buruntzantzan taldekoek, Txanbolin taldekoek eta dantzariak dena eman zuten. Baita, nola ez, sorginek ere. Ikuskizuna luzatu egin zuten, sua piztu aurretik arkua eginez. Bertatik igaro ziren Paqui Navas eta Mikel Franco, ikusleen txalo artean. Denda Berriko lehen-dakari berriak sua piztu zuen segidan. Hortik aurrera, Antton Jauregik erromeria gidatu zuen.

Saio ikusgarria Plazido Muxikan



Arantxa Corbelle lehen planoan.

Sorginak San Juan bezperako ospakizunaren protagonista nagusi bilakatzen ari dira, txistulariekin eta perkusio taldearekin batera. Geroz eta dantza saioak eta antzezpen hobeak lantzen ari dira. Ikusleen begietara ikuskizun ederra eskaintzen dute.



Paqui Navas eta Mikel Franco, Mari eta Aker pertsonaien paperean.

Aker eta Mari Akerrek jausi eta mugimendu ikusgarriak egitera ohitu ditu urnietarrak, San Juan bezperako ikuskizunean. Aurtengoan Mariren paperean Paqui Navas aritu zen. Ez zen esku hutsik agertu, Sugar sugearen "gainean" agertu baitzen Urnietara.



Dantza emanaldi ezberdinak eskaini zituzten Plazido Muxika plazan.

Dantzari gazteak Musikak eta antzerkiak toki berezia dute ikuskizunean, baina horien gainetik nagusitzen dena dantza da. Dantza garaikideari tokia egin zioten, sua piztu aurretik. Euskal dantza tradizionalak tokia hartu zuten, behin sua piztuta.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

ANDOAINO UDALA

ANDOAINO UDALA

Esker ona



Bost egunez festan murgilduta egon ostean, amaitu dira aurtengo San Juan festak. "Sanjuanetan denok dantzari!" lelopean antolatu genituen aurtengo jaiak, eta zalantzarik gabe, gorputzeko gihar guztiak nekatu artean ibili gara batera eta bestera gorputza astinduz.

Aurtengo Sanjuanetako egitaraua ekintzez betea etorri da, urtero legez; 58 ekintza burutu dira guztira, horietako asko herriko talde eta elkarteek antolatu eta aurrera eraman dituztenak.

Partaidetzari dagokionez, berriz, azken urteetan gora doa egunez antolatzen diren ekimenen partaidetza. Aurtun, gainera, eguzkia eta eguraldi ona izan dugu lagun, eta horrek ahalbidetu du andoaindarrak goizean goizetik kalean egotea, antolatutako ekimenez gozatuz. Adin guztietako herritarrek batu dira festara, eta hori oso poztekoa da.

Ez genuke amaitu nahi jaiak aurrera ateratzeko ahalegina eta lana egin duten horiei esker mezua helarazi gabe: elkarteei, taldeei, herritarrei, eta batez ere, Udaleko langileei, oso bereziki Kultura saileko langile eta kideei.

Datorren uztailaren 2an, 19:00etan, balorazio sakonagoa egiteko aukera izango dugu Urigain kultur etxean. Herritar guztiak animatu nahi ditugu euren iritzia ematera eta guztion artean, Andoain egitera!

SAREAN

Erreportari gazteen lanak irakurtzeko aukera on line

ERREPORTARIGAZTEASARIA.
WORDPRESS.COM

Andoaino Udalak duela egun gutxi banatu ditu Erreportari gaztea sariak, ikasleen artean euskarazko kazetaritza idatzia sustatzea helburu duen lehiaketari dagozkionak. Aurtengoa XXI. edizioa izan da eta sari nagusia "Erakarri ala zaindu" izeneko erreportajeak irabazi du. Donostiako portua eta itsas bizitza ardatz hartuta, epaimahaikideentzat huraxe izan da erreportaje onena. Egileak Aita Larramendi ikastolako June Montejo eta Maialen Lumbreras izan dira. Sari nagusiaz gain, ikastetxe bakoitzeko beste bi sari gehiago banatu dituzte.

La Salle Berrozpeko onena industriaren garapena aztertu duen "Andoaino bigarren sektoreak iraganeko sustraiei



gogor eusten" izan da, eta egileak Ibai Estanga, Iker Mediavilla eta Adei Rodriguez dira.

Leizaran institutuko lan onena Nahia Iglesias eta Janire Bayorentzat izan da, "Bizi berri baten bila" erreportajeagatik.

Sari horiez gain, aipamen berezia eskaini diote Handia filmaren inguruan egindako "Herri txikitik mundu zabalera" erreportajeari. Maddi Bekarte eta June Miner izan dira egileak.

Lan originalak ikusgai daude sariketari dagokion blogean.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebeze ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALJATUAK: ALJATUAK

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

GIPIZKOAKO FORU AHDUNDIA

GIPIZKOAKO Foru Ahdundia
Hiduntza
Berlindiasmerako
Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

“2019an irabaztera aterako gara, asmo garbia daukagu”

MARIJOSE IZAGIRRE ANDOAINGO EAJ-PNV ALDERDIAREN ALKATEGAIA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN Gipuzkoako EAJko lehen hautagaien artean zurea iragarri zen ekainaren 16an. Zeintzuk izan dira hautagaitzari baiezkoa emateko arrazoiak?

EAJ-PNVn barne prozesu luzea egin dugu. Hautagaiak proposatu ondoren, batzarrean erabakitzen da. Andoaingo kasuan batzarrak aho batez onartu zuen nire proposamena, eta niretzat ohore handia da.

Zein aurreikuspen duzue 2019ko maiatzerako?

Irabaztera aterako gara, asmo garbia daukagu. EH Bildu oso desgastatuta zetorren iraganeko blokeo politikagatik, eta herrian egin diren inbertsio nagusiak guk finkatu genituen. Gutxiengoan zegoen gobernuari oposizioetik laguntzea erabaki genuen. Gobernuan egonda, askoz gauza gehiago egin ditzakegu. **EH Bilduko gobernu taldearen lanari zein nota ipiniko zenioke?** Bi aro egon dira. Agintaldi hasieran elkarlan oso txukuna



Ekainaren 16an iragarri zuten Mari Jose Izagirreraren hautagaitza. EAJ-PNV

egin dugu. Hori ona izan da herriarentzat. Baina gero zinegotzi ez atxikituaren agerpenarekin gauzak aldatu egin ziren. Gehiengoak berarekin eta Irabazi eta Ganemosekin batera bilatu

dituzte. EH Bildu iraganeko politikara itzultzen ari da. **PSE-EEekin Andoain zertan egon zarete ados? Eta zertan ez?** Alderdi berriekin alderatuta, sozialistek eskarmentu handia dute udalgintzan. Zentzuzko

gauzak planteatzen dituztenean ados egoten gara. Baina Andoainen, adibidez, bazirudien herria geroz eta okerrago egonez gero eurentzat elektoralki hobe zela eta guk ez dugu horretan bat egiten. Gure ustez herriaren garapena ahalbidetu egin behar da. Politika egiteko bi eredu ezberdin ditugu.

Zinegotzi ez atxikiaren botoa erabakiorra da orain. Zein iritzi duzu egoera horren aurrean?

Hori zinegotzi bakoitzari dagokion erabakia da, eta guk errespetuz ikusten dugu. Egia da Irabazi eta Ganemoseko ordezkariekin batera gehiengo osoa ahalbidetu diezaiokela EH Bilduri, eta horixe gertatzen ari da. EH Bilduri txeke zuria eman diote.

2015ean EAJ-PNVko lau botoak ez ziren norabide berean joan. Zuen abstentzio batek eragin zuzena izan zuen Carreren izendapenean. Niretzat eta alderdikideentzat oso momentu gogorrak izan ziren, tentsio handikoak. Goi mailan hartzen diren erabakiak gero herri mailara ekartzea batzuetan konplexua izaten da. Andoain eta andoaindarrok estatuko hedabidean aldetik jaso genuen tratua penagarria izan zen. Fiskaltzak ere gugan jarri zuen begirada. Tamalgarria izan zen.

HAU ERE BADUGU!

Zabalkunde handiko kronika



Amaia Etxezarreta kazetariak Iruñeko espetxetik "La Manada"ko zigortuen irteera zuzenean jarraitu zuen, eta bertatik kronika bana zabaldu zuen ETBra eta Canal Surrera. Irteeran izandako jokabide zatarra aipatu zuen, aho bilorik gabe. Kronika horrek ogibide bereko lankide askoren txaloak jaso ditu. Twitter sarean, adibidez, oihartzun zabala izan du Canal Sur telebistarako landu zuen kazetaritza piezaren bideoak.

Suaren inguruan ospakizun ugari



Ohiko hedabideetan, maiz, jende gehien biltzen den ekitaldien berri ematen da. San Juan jaietan antzeko gertatu ohi da, ia kasu gehienetan inertziak. Bere txikitasunean, ospakizun gehiago izaten dira inguruan. Andoainen, esaterako, Alejandro Calonge auzunean. Argazkiak eta bideoa ikusgai daude Andoaindarras y punto FB orrialdean. Ikus daitekeenez, pozarren zeuden.

DATUA

Eguraldia

Uda betean sartu gara, egutegiari eta eguraldiari begira. Duela astebeteko laino eta euri kontuak alde batera utzi eta herriko jaietan zerua urdin izan da. Tenperaturak gora egin du azken egunetan, bero handia izateraino. Imanol Fernandez @MeteoAndoain eguraldi adituak eman zuen datua, twitter bidez, astearte eguerdian: "Gaur bai, bero egiten du Andoainen. 12:40tan tenperatura 27 C-koa da, baina %65eko hezetasunarekin sargori dago. Sentsazioa 29/30 C-koa da. Leitzaran ibaian baten batek bainua hartu nahi badu, ibaiaren tenperatura 17 C-tan dago". Uda giroko eguraldia adierazten duten aldagaiak, horiek guztiak.

GORA ETA BEHERA



San Juan sua igarota, arrisku handiko gune bilakatzen da

Suaren tradizioa baserri eta auzo ezberdinetara zabalduta dago, baina zer gertatzen da suaren ospakizuna igaro eta gero? Karrikan, esaterako, arriskuz beteriko gune bilakatzen da. Haur parkea bertan dago eta sutearen hondakinen artean burniak, iltzeak eta bestelako elementu gehiago bertan geratu dira. Arriskutsua da.





Erraldoi eta buruhandien konpartsa lagun askoren lankidetzari esker antolatu ahal izaten da. Zutik, ezker eskuin, Mikel Arberas, Manu Olazabal, Mikel Olasagasti, Eneko Lazkoz, Ibai Martin, Iban Muñoz, Oier Irazu, Andoni Etxezarreta, Iker Egaña eta Eñaut Egaña. Belauniko, ezker eskuin, Unai Barrutia, Gari Asensio, Asier Iraola, Iker Mujika, Jon Arregi, Jokin Letamendi, Diego Barrasa, Mikel Erbiti eta Andoni Alonso. AIURRI

Jaien hasiera: Musika, dantza eta aldarrikapena Goikoplazan



Trikitilariak Goikoplazan, erraldoi eta buruhandien artean igarotzean. AIURRI



Dantza garaikidea ikusgai Bakartxo eta Josebaren ikuskizunean. AIURRI



Jaiak hastear zirela, Nafarroako Auzitegi Gorenak "La Manada" auzian zigortutako bost kideei baldintzapeko askatasunean irteteko aukera eskaini ziela jakin zen. Albisteak berehalako erreakzioa piztu zuen euskal gizartean, han eta hemen protesta ekitadiak antolatuz. Andoainen Asanblada feministak elkarretaratzea deitu zuen, eta herritarrek zeramaten pankartz gain beste bi gehiago eskegi zituzten. Lehena elizako balkoitik eta, bigarrena, udaletxeko balkoitik. Herrian zehar pankarta gehiago eskegita izan dira, eta Udalak "Ez da ezetz" kanpainarekin jarraitu zuen.



Pregoa irakurrita, Ingurutxo dantzazeari ekin zioten Urki dantza taldeko kideek. AIURRI

Urki, ez utzi dantzazeari

Eskertuta hartu zuten San Juan jaien hasierako pregoia irakurtzeko herritarrek eskaini zieten aukera. Jaien hasieran dantza proposamenak nagusitu ziren



Urkiko atzoko, gaurko eta etorkizuneko partaideak igo ziren Udaletxeko balkoira pregoia irakurtzera eta txupina botatzera. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Urki dantza taldeak etorkizuna irudikatzen duten bi kide gazteren esku utzi zuen pregoia

irakurtzeko ohorea. 30 urte dira euskal tradizioen alde lanean hasi zirela, eta denbora tarte horretan dozenaka herrikidek

euskal dantzak ikasteari ekin dio. Urkik, gainera, San Juan jaietan parte hartze berezia izan ohi du.



Begoña Igartua eta Ramon Izeta Urki dantza taldeko lehen irakasleak. AIURRI

Uda giroko eguraldia

Eguzkitakoa apaingarri bitxia izateaz gain, txuleta jatean itzala emateko tresna baliagarria izan zen. Herri bazkaria girotzeko osagarri aproposa bilakatu da



Bazkari herrikoia antolatzaileak, auzune ezberdinako jai batzordeko kideak. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

"Txuletak eta bazkari giroa, mundialak". Halaxe mintzatzen zen herri bazkarian parte hartzaile izan zen bat baino gehiago. Auzoetako Jai Batzordeek Sanjuanetako larunbatean antolatu ohi duten txuleta jateak arrakastarako formula topatu duela esan daiteke, eta ezinbesteko hitzordu bilakatu da herri-askorentzat.

Bazkaritara, herritarrek ez ezik, goizean zehar kaleak girotzen ibili ziren Maizorri txala-

parta eskolako txalapartariak eta Kantu Kalejirako abeslariak batu ziren. Horiekin batera, ez zuten hutsik egin aurtengo Sanjuanetan pregoia irakurri duen Urki dantza taldeko kideek, gonbidatu berezi gisa. Nahiz eta gogor jo eguzkiak, kuadrilek etxetik ekarri zituzten eguzkitakoei eta Udalaren haime esker, itzala soberan izan zen Goikoplazako pilotalekuan.

Ohikoa denez, eguzkitakorik dotoreenaren eta zatarraren sariak jokoan jarri ziren. Epai-

mahai batek erabaki zuen nortzuk merezi zuten bi sari horiek eskuratzea. Badira gogoz saiatzen direnak sari bat edo bestea irabazteko asmotan, irudimena erabiliz horretarako. Ilunabarra heltzeaz zenean, bazkaltiarrek mahaietatik altxa eta pilotalekuko bazterrak txukun-txukun utzi zituzten. Ondoren, gehienak kalejiran abiatu ziren txarangak lagunduta; gainerakoek jai egitarauak prestatutako beste zenbait ekitaldiekin gozatzen jarraitu zuten.

GORA ETA BEHERA



Zorigaiztoko ezbeharrak dantza-sokan

Alkateak ezustekoa izan zuen dantza-sokan, Akilesten tendoiaren haustura partziala izan baitzuen. Ezbeharrak ez zen txikia izan, hainbat astez hanka lurrean ipini gabe egon behar baitu.



Maialen Gurrutxaga eta Oinatz Gonzalez bikotea nagusitu zen kros mixtoan. AIURRI



Santa Krutz peñak aurkeztutako tortila izan zen onena. AIURRI



Ardo dastaketa. AIURRI



Bizikleta festa, Andoingo txirrindulari eskolako kideen eskutik antolatzen da. AIURRI



Udal agintariek piztu zuten sua, ehunka herrikide plazako albo guztietatik begira zituztelarik. UNANUE



Urki dantza taldeko kideek ohiko dantza saioa eskaini zuten Goikoplazan, San Juan suaren inguruan. UNANUE



Xake partidak San Juan bezperan. AIURRI



Kantujira taldeko partaideak, Maizorriko partaideekin batera eskainitako saioan.

GORA ETA BEHERA



Galdu berri duten kideari omenaldia

Udal musika eskolako abesbatzak berriki hil den Marian Ulanga Egues kidea gogoan hartu zuen. Salbe Gorena kontzertua berari eskainiko ziotela adierazi zuten, ikusleen txaloak jasoz.

Danbor hotsak San Juan bezperan



Andoaindarra elkartearen arratsaldean irten zen, elkartetik Goikoplaza aldera.



Agustin Leitza elkartearen kideek San Juan suaren saioa eskaini ohi dute.



Gora Kaletxiki txarangak danborrada eta beste ekitaldietan parte hartu zuten.

Biderkatu egin dira

Axeri Dantzara belaunaldi berriak hurbiltzen ari dira, aspaldi ez bezalako partaidetzara iritsiz. Eguraldia lagun, Andoaingo berezko tradizioa arrakasta handiz biziberritu zuten



Atzean Ander Gerrero eta Unai Ormazabal. Erdian, zutik, Eñaut Egaña, Mikel Arberas, Mikel Ezeiza, Oier Irazu, Inge Lekuona, Goretti Otegi, Jone Perez eta Mattin Yusta. Makurtuta, Odile Txueka, Irati Uranga, Maider Tapia eta Klaudia Zumelaga. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

70 lagun inguruk hartu dute parte aurtengo Axeri Dantzan, ezagutzen ziren marka guztiak hautsiz. Partaidetza gorantz doa urtez urte, eta 1976an Adunan eta Andoainen berreskuratu zenetik ezin sustratuago ageri da dantza berezi hori. Blusaren

kolorea nagusitu zen Goikoplazan, horrenbestez. Gainera, dantzaren bigarren zatian jendartetik herritarrak Soka Dantza dantzatzerara gonbidatu zituztenez plaza gainezka jarri zen, ezin ikusgarriago. Dantzak plazan ordu eta laurden irauten badu ere, axeri dantzarien kuadrilak

egun osoko festa antolatu ohi du, kale giroa suspertuz. Hain zuzen, igandean, Buruntza jate-txean hamaiketako legea egin, eta kalejiran ibili ziren zenbait auzoetan barrena. Dantza egin ostean, berriz, Santa Krutz elkartearen bazkaldu eta arratsaldean kalejirari ekin zioten berriro.



Soka-dantzan, hirurogeita hamar dantzariak beste hainbat bikote topatu zituzten ikusleen artean. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Euskaraldia sustatzeko kanpaina

Euskara ahoan duena eta belarrira arrotza ez zaiena, biak ala biak, ezinbestekoak izango dira udazkeneko Euskaraldian. Andoaingo taldeak sentsibilizazio kanpaina egin du jaietan.

Bertsolari gazteak gai jartzaile



Ion Beloki alboan zutela, bertsolari gazteek puntua ipini zioten Iguarani.

Oihana Iguaran, Amets Arzallus, Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Sustrai Kolina eta Maialen Lujanbiok osatutako seikoteak bertso saio polita eskaini zuten San Juan egunean, Ion Beloki gai jartzailearen agindutara. Saioan zehar Punttuka bertso eskolako lau gaztetxok Iguarani, Mendiluzeri eta Colinari puntuak jarri zizkieten. Guztien artean, hona lau puntu eta lau erantzun:

Julen Gaztañaga:

Zuretzako bertsoa aisi edo lana?

Oihana Iguaran:

Nahiz sarri nekatuta heldu zuengana, nahiz ta albora utzi kuadrilaren plana, zuekin kantatuta aldatzen da dana.

Iñaki Lopez de Muniain:

Sorabilla aldean ikusten zaitugu

Aitor Mendiluze:

Bai, amak estalpea han bertan hartu du. Beraz, handik pasako garela seguru, amak beso zabalik hartzen baikaitu gu.

Eneko Uribe:

Bazkaria kentzera joaten al zera?

Aitor Mendiluze:

Seme gehienen gisa gutxi gora bera, eta jakin joango naizela atzera, prestatzen jardun gabe bapo bazkaltzera.

Eneko Rubio:

Andoainen etxe bat jarriko dizugu.

Sustrai Kolina:

Ta horren motibua ez nago seguru. Nahiz ta urtean egin bi saio inguru emandako guztiak hartu ohi ditugu.



Kontzejupeko bi finalatan protagonista izan ziren bikoteak, sari banaketa ekitaldian. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Zezen suzkoa bi gauz Goikoplazan

Ekainaren 22an eta 24an Kontzejupeetik atera zen zezen suzkoa, lau minutu eta erdiz zirrara eta emozio berezia piztuz. Zezena eramaten zutenek gogotik izerditu zuten.



Jubenil mailako Gipuzkoako Itzuliaren irteeran, Ontza elkarteak urte luzez lankide izan zuen Iñaki Igerategi omendu zuen. AIURRI

Munduko zaporeak ekimena



Nikaragua, Nigeria, Errumania, Iran eta Argeliako jakiak dastatu ahal izan ziren.



Afrika aldeko barazkiak eta arrosa, enpanada eta oilaskoa. AIURRI



Mundu mailako txapelketan dominak eskuratutako emakumezko bi talde aritu ziren, Ibarra eta Gaztedi, herri kirol erakustaldian.



Errumaniarrek jakiz beteriko postua ipini zuten. AIURRI

Dantzaren aldaera guztiak oholtza gainera

Balleta, euskal dantza, funkya, zumba... , dantza saioek protagonismo berezia izan dute San Juan jaietan



Azelain eta Mugaz taldeek jaietan ohiko duten emanaldia eskaini zuten Goikoplazan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

'Sanjuanetan denok dantzan' izan da Andoingo Udalaren goiburua, aurtengo jaietan. Traola edo hastag horixe zuten sare sozialetan. Kantuarekin batera, dantza izan da gehien nabarmendu

den kultur jarduera. Azelaineak, balletaren bitartez, koreografia ezberdinak eskaini zituen jaietan. Ez zen asteleheneko dantza proposamen bakarra izan, Urkik urteurreneko emanaldi berezia eskaini baitzuen gauean.

Dantzazaleek aukera zabala izan dute jaiotan: Tio Teronen semeak, Joseba eta Bakartxo eskola, soka-dantza, San Juan suko dantzaldiak, Axeri dantza, funky eta zumba saioak, Triana taldea, erromeria...



Urki dantza taldeak 30. urteurreneko emanaldia eskaini zuten Goikoplazan. IMANOL FERNANDEZ

GORA ETA BEHERA



Giro eguzkitsua jaietan

Giroa beroa izan da, baita eguraldiari dagokionez ere. Eta zeinen garrantzitsua den, ekitaldiak bere horretan egiteko. Argazkian, ikusle talde handi batek itzaletik jarraitu zuen emanaldia.

Lagunen artean kantari



Kantari aritu zen herritar taldea, Goikoplazan. UDALA

Astelehen arratsaldean, Laket erromeria taldeak Andoainen musika alorrean ezagunak diren hainbat familia eurekin kantatzera gonbidatu zituen. Ikusleentzat emanaldi polita izan zen, eta bat baino gehiagorentzat baita hunkigarria ere. Juanita Ikutza, Txitxu Castro, Mikel Urdangarin, Maddi Etxeberria, Maddalen Mujika, Aran Mujika,

Itsaso Sanchez, Xabier Sanchez, Amaia Oreja eta Ixiar Oreja igo ziren taula gainera. Emanaldian zehar Anje Duhalde, Esne Beltza, Zea Mays, Itoiz eta kantu herrikoie ezagunak abestu zituzten. Gonbidatu guztiak elkarrekin "Zazpiak oihal batetik" abestuz agur esan zioten emanaldi bereziari. Ainhoa Aiertza aritu zen aurkezle lanetan.



Gonbidatuek "Zazpiak oihal batetik" abestuz agur esan zioten emanaldiari.



Jaietako azken egunean adinekoei bazkaria eskani zien Udalak, Bastero kulturgunean. ANDOINGO UDALA



Zunba bogan dagoen jarduera da, plazara hurbildu zen gazte eta heldu talde zabala ikustea besterik ez dago. AIURRI



Dantza garaikidea eskaini zuten talde ezberdinek, tartean Klapa taldekoek. AIURRI

Ikastetxeen parte hartze zuzena



Agintari lanetan aritu zen ikasle taldea. AIURRI



La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak. AIURRI



Aita Larramendi ikastolako ikasleak. AIURRI



Ondarreta ikastetxeko ikasle taldea. AIURRI

Sargori zen astearte arratsaldean, Andoaingo kaleetan, 30 C-ko temperaturara iritsiko ziren. Beroa pasa zuten, beraz, haur danborradako partaideek. Ohi bezala, alkate eta agintarien atzetik danbor jole txikiak kalejira egin zuten Zumea plazatik Goikoplazara.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 29

ANDOAIN Jaiak

Kaletxikiko jaien hasiera. Egitarau osoa, azken orrialdean.

Kaletxiki, egun osoan zehar.

LARUNBATA 30

ANDOAIN Jaiak

Kaletxikiko jaietan, ospakizun ugari egun osoan zehar. Egitarau osoa, azken orrialdean.

Kaletxiki, egun osoan zehar.

URNIETA Ur festa

Ospakizunak igerileku irekian, udan. Lehena asteburu honetan izango da. **11:00-14:00, Udal kiroldegia.**

URNIETA Ipuin kontalaria

Marisa Taberneroren eskutik. **18:00, Lekaio.**

URNIETA Musika

Zero Sette akordeoi orkestrak "Jai Band" emanaldia eskainiko du. **19:30, Zubitxo plaza.**

IGANDEA 1

ANDOAIN Jaiak

Egitarau osoa, azken orrialdean. *Kaletxiki, egun osoan zehar.*

ANDOAIN Txapelketa

3x3 Basket txapelketan izena emateko azken eguna. Txapelketa uztailaren 9tik 24ra jokatu da. **Gaztetxea.**

Lorrazak taldeko kideak "Oinutsik" izeneko azken diskoko azalarekin. AIURRI

ANDOAIN Lorrazak musika taldearen agurra

Lorrazak musika taldeak azkeneko kontzertua eskainiko du Leitzarar Bisitarien Etxean. Antolatzaileek Otieta parkeraino bizikletan joateko deialdia luzatu dute. Musikaz eta paisaia ederraz gozatzeko aukera paregabea. **Ekainak 28, osteguna. 20:00, Leitzarar Bisitarien Etxea.**

ANDOAIN Flamenco emanaldia

Zuenaren eskutik eta tratu txarren aurka lanean ari den Clara Campoamor erakundearen alde. **19:30, Bastero.**

ASTELEHENA 2

URNIETA Odol-emaileak

18:30-20:30, Anbulategi zaharra.

ANDOAIN Bilera

San Juan jaien balorazio bilera. **19:00, Urigain.**

ASTEARTEA 3

ANDOAIN Aurkezpena


Salkinen logo eta lelo berria. **13:00, Espigoia.**

LARUNBATA 7

URNIETA Ongi Etorri Baserrira!

Eula sagardotegira (sagastiak-sagardoa) Adarrazpi baserrira (ardiak, gazta eta mamia) bisitaldiak. **11:00, Eula.**

ZINEMA



ANDOAIN

ZINEMA KALEAN

Guardianes de la Galaxia

Ostirala, 6: 22:00. Bazkardoko frontoia.

Batman Lego
Osteguna, 12:

22:00. Zumea plaza. Euskaraz.

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

Ostirala, 20: 22:00. Goikoplazako frontoia.



SINOPSIS

Guardianes de la galaxia

Zuzendaria: James Gunn. **Herrialdea:** Estatu Batuak (2014). **Iraupena:** 118 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Galaxia zaintzea helburu

Marvel-eko komiki batean dago oinarrituta pelikula, non preso ohiek talde bat osatuko duten "Galaxiako zaindaria" izenekoak.

Peter Quill erdi izaki-erdi alien itxurako sari ehiztaria, Rocket rifledun mapatxea, Groot giza itxurako zuhaitza, Gamora kolore berdeko gizakia eta Drax suntsitzailea dira filmeko protagonistak. Ronan maltzurragandik ihes egiten


lagundu beharko die Quill-i galaxiaren zaindariak.

Ronanek esfera misteriosua eskuratu nahi du, Quill-ek aurretiaz lapurtu duena eta dirudiena baino boteretsuagoa dena. Quill eta bere lagunak helburua galaxia Ronan moduko gaiztoengandik salbatzea izango da, hots, galaxiako zaindaria izango dira. Bazkardon ikusgai, uztailaren 6an.


Uda hasierako ospakizunak webgunean



Andoaingo Sanjuanak, argazkiak



Andoaingo Sanjuanak, bideoak



San Juan bezpera Urnietan, argazkiak

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora.

Tel.: 943 300 732.

Whatsapez: 619 16 35 37

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 30 eta igandea 1

ZATARAIN: Elizondo, 6. Arteta, z/g.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 30 eta igandea 1

ETXEBESTE: Elkano, 9. Behea.
943 552 087. Hernani.
Gaez, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Jon Zulueta alkate lanetan

Alkatearen eta udalbatzaren soka-dantzan Ana Carrere alkateak ezbeharrak izan zuen; eta hori dela eta, baja egoeran aurkitzen da. Udalak adierazi duenez, Udaleko gaiak ez ditu erabat baztertuko: "Bajak irauten duen artean eta Udaleko eguneroko gaiak arintzeko, Jon Zulueta Berastegi alkateordea izendatuko da, Alkatearen funtzioak bete ditzan".



Magale aurkeztu dute

Aurrerantzean Urnietako Presentacion de Maria ikastetxea eta Salesiar ikastetxea elkarrekin arituko dira. Lotura estu horren bitartez Magale izena hartuko dute bi ikastetxeek, haur hezkuntza hasi eta batxilergora bitarteko hezkuntza eredu eskaintzeko. Heziketa erakunde berriko koordinatzailea Agustin Urretabizkaia izango da.



Harrera ekitaldia

Ekainaren 28a LGTB+ kolektiboaren nazioarteko eguna da. Urnietako Udalak, azken urteetan egin duen moduan, ostadarraren koloreak dituen aterkiak ipini ditu udaletzeko balkoietan. Ekintza sinboliko horrekin bat egiten du nazioarteko egunaren aldarrikapenarekin. Aterkien artean berdintasunaren aldeko kartela ipinita dago.



Eskelak Aiurriin: 90 euro



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

AZKENA

Egitaraua

Ostirala, 29

19:00 Kandido eta bere

Txikitxuei
ongietorria.
Buruhandiak.

20:00 Eguzkigoxo

Abesbatza.

21:00 Bokatafari herrikoa.

21:45 Bakarrizketak.

Maribel Salas, Raul
Fervé. Ondoren,
Bocabeats.

22:30 Mus txapelketa.

23:30-01:30 Disko Rock

Remember festa
Nemux DJren
eskutik.

Larunbata, 30

10:00 Eskupilota topaketa

Goikoplazan.
Txokolatada.

10:00 Karmelo Lasarte

plater tiraketa.

12:00 Sagardo txapelketa.

12:00 Haur parkea.

14:30 Oilasko-bazkaria.

17:00-18:30 Rockalean.

17:30 Haur parkea.

18:30 Haur danborrada.

19:00 Danborrada
nagusia.

21:30 Ontzan afaria.

23:00-01:30 Camp
dantzaldia Nemux
DJren eskutik.01:00 Oilasko hotza
txanpainarekin.

Igandea, 1

10:00 Diana.

10:00 Mendi Krosa.

12:00 Meza Berrozpen.

12:15 Soka Dantza.

13:00 Gora Kaletxiki
txarangaren
emanaldia.

14:00 Bazkari herrikoa.

16:30 Gora Kale txiki
txaranga.17:00 Ezkondugabeen eta
ezkonduen arteko
futbol partida,
Gorriti Show-rekin.18:00 Herri Txiki festa,
Gorriti Show-rekin.19:30 Sardina jatea, DJ
Pintxok girotuta.
Dantzaldian
Kandido eta
Txikitxuek jai
amaiera emango
diete.

Joan zen astean Ontza elkarteak bildu zen Kaletxikiko jai batzordea, festetan laguntzaile arituko direnekin batera. AIURRI

Kaletxikiko jaiak asteburu osoan zehar

Manu Gorostegi izango da aurtengo Kandido. Alaitasuna eta jendartekotasuna, bertute horiek dituen pertsona delako hautatu dute aurtengo festetako protagonista nabarmenena izan dadin

Xabier Lasa ANDOAIN

Poza ez ezik harrotasun pixka bat ere ematen dio Kandidoren larruan sartu beharrak. “Bete beharreko protokolo guztiak ahalik eta txukunen egiten saiatuko naiz; hori bai, dantza, hobe alde batera uzten badugu, zeharo makala bainaiz”.

Badira urte batzuk proposatu izan diotela Kandido izateko Kaletxikiko jaietan, baina ezeko erantzun izan du beti. Aurtengo urteak, ordea, badu berezitasunik berarentzat, eta iritziaz aldatzea eragin dio. 2018ak sinbologia handia baitauka, eta zergatia, erraza da ulertzen: “Hernaniarra izanagatik, bizitza erdia Andoainen daramat, Kaletxikin. Kaletxikikoa den Arri-txu Zalduarekin Berrozpen ezkondu, eta Andoainen bost bat urteko bizialdia egiteko asmoz etorri nintzen. Baina hor non hogeita bost urte daramadan bertan!”. Umorea aisa ateratzen zaion gizona da, eta atera dio punta errealitate horri ere: “Be-

rrozpen ezkondu eta handik berrogei metrora geratu nintzen bizitzen”.

Kaletxikiko jaiak modu berezian bizitzen dituen familia dauka Manuk. “Semea, Lander, bete-betean sartuta dabil antolaketa lanetan, umetan Kandidoren laguntzaile Txikitxo bezala hasi zenetik. Izugarri bizi ditu jaiak, eta azkenean, berak arrastaka eraman nau modu batera edo bestera jaietan laguntzaile izatera”.

Kaletxikitarren nortasuna deigarria egiten zaio

Kaletxikitarrek nortasun propioa, bere-berea dutela azpimarratzen du Gorostegik. Horrela, Kaletxikira bizitzera etorri zenetik, bertako auzotarrek gauza batean eragin izan diote harridura: “lehenbiziko kaletxikitar sentitzen dira, eta andoaindar ondoren. Ezagutzen dut Oiartzun, Hernani, Astigarraga eta Arano jendea, eta inguru horietan ez da halakorik ematen”.

Pertsona nobletzat dauzka kaletxikitarrek Gorostegik. “Auzoaren eta festaren maitale amorratuak dira bai, baina ez dira atzera geratzen lanerako orduan. Egundoko meritua daukate urtero-urtero holako jai egitaraua osatzeagatik. Eta horretarako premiazoak diren hiru ezagarrak erakusten du garbi: auzozale, festa-zale eta langile izatea”.

Sagardo dastaketa, oso gogoko
Egitaraua eskuetan duela, ekitaldi gehienak dituela gogoko adierazi du Manuk. Nolanahi ere, larunbat eguerdian ospatzen den sagardo txapelketarekin gozatzeko du gehien. “Sagardotegietako sagardo diferentiek dastatzeko aukeraz gain, bertan sortzen den festa giroak erakarzen nau. Nire lanbideak galarrak egiten dit halako jaietara joatea normalki, baina Kaletxikikoa salbuespentzat hartzen dut”.

Gorostegik aurrekontu handiko ekitaldiak baino, nahiago



Manu Gorostegi Garaiar bus konpainiako gidaria da AIURRI

Gorostegi, aurtengo Kandido

Hernaniarra sortzez, duela hogeita bost urte etorri zen Kaletxikira bizitzera. Manu Gorostegi izango da, beraz, aurtengo Txikitxoekin batera jaiari hasiera emango dena. Kandido karguan asteburu osoan arituko da, harik eta igande arratsaldean jaiak agurtuko dituen arte.

izaten ditu xumeak, jendea elkarrekin biltzeko egokiak izango direnak. Ziurtatzen duenez horretatik soberan datoz Kaletxikiko jaiak. “Jendea elkartzeko, giza harremanak eta alaitasuna bultzatzeko, eta azken batean, giro herrikoa sortzen duten ekitaldiak barra-barra dauzkate Kaletxikiko jaiak. Ikusi besterik ez dago, bokata afaria, oilasko-bazkaria... Horieta aparta, asko erakartzen nau igande arratsaldeari begira berreskuratu den ezkongabe eta ezkonduen arteko futbol partidak. Umorea eta txantxa izaten da nagusi hor, eta horixe da behar duguna, bizitza nahiko garrantza egiten zaigu-eta maiz”.

Azkenik, Manu Gorostegik gonbitea luzatu diete gainerako andoaindarrei eta inguruko herrietako biztanleei, Kaletxikira hurbil daitezen. “Edozein adinoko jendeak gozatzeko moduko ekitaldiak topatuko ditu; umorea eta dibertsioa ziurtatuta edukiko dituzte”.